

HERRI MUSIKAREN 5. JARDUNALDIAK

Euskal Herria, Galizia eta Gaztela Leongo pandero, pandereta edo pandeiraren errealitateak ezagutzeko parada ezin hobea izan dugu Oiarztunen pasa den azaroaren 25 eta 26an, Herri Musikaren 5. Jardunaldiei esker. Lalingo Conservatorio de Música Tradicional e Folque-ko galegoekin eta Euskal Herriko Trikitixa Elkartearekin batera antolatutako ekimen honek emaitza ezin hobea izan du.

Lehenbiziko hurbilketa larunbat goizeko mintegian eman zen ikuspegi oso ezberdinak ezagutu ahal izan genituelarik, herrialdearen arabera: Xose Luis do Picok, Gabriel González Villalbak, Imanol Urkizuk eta Xabier Leturiak bakoitzaren eremuko egoera, bilakaera historikoa eta abarren deskribapen orokorrak eman zizkiguten, zehaztaperen baliotsuekin hornituta: izenak, erritmoak, berriemaileak, pasadizoak,... . Atsaldetan, Ixar Orejak gidatu zuen mahai inguruan guzti horretan sakontzeko, ondorio batzuk ateratzeko eta amankomunean izandako kezka, arazo eta helburuak berraurkitzeko aukera izan zen. Beti bezala, gauza asko geratu ziren hurrengo batean lasaia aztertzeko. Afaldu aurretik, toki ezberdinetatik etorritako musikarien saio ederraz gozatzeko parada ere izan zen Udaletxeko Areto Nagusian: jotzeko era ezberdinak, kantuak, dantzak,... erakutsi zizkiguten Lalingoek, Gabriel Gonzalez Villalbak, Leturia, Imanol eta Mutrikuk eta Kepa eta Robertok. Afalosteak dexente luzatu zen musika eta dantzan artean.

Igandeko tailerrak -oso arrakastatsuak gertatu zirenak- hiru mundu ezberdinak izan ziren. Leongo panderetari buruzkoa izan zen lehena eta bertan hango erritmoak landu genituen, batzuetan kantuz ere hasi ginelarik.



Igande atsaldetan Oiarztungo pandero joleen harrobia

Bigarrenetan Galiziako teknikak probatzen hasi ginen, nola hala, emaitza aldakorrek. Bi tailer hauetan Leon eta Galiziako hainbat eskualdeko aldaerak ikusi genituen praktikoki. Hirugarren tailerak kontserbatorioko panderoa

ekarri zigun, Urko Arozenaren eskutik, orkestretan erabiltzen diren teknikak eta kontzeptuak aztertuz. Ez zen falta azterketa historiko-ikonografikoa ere saio honetan.

Bazkaldu ondoren erromeri garaia iritsi zen, hain trinko izan diren jardunaldi hauek festa giroan bukatzeko, musika eta dantzaz. Oiarztungo Doneztebe plazan burutu zen ekitaldi hau, aipatutakoaz gain, Oiarztungo bertsolariak eta trikitilariak eta Zumarragako Trikitixa ere aritu zirelarik. Askok ikasi dugu egun hauetan eta giro ezin hobean. Nola ez hasi pentsatzen zertan arituko garen 6. Jardunaldietan?



Leturiak eta Imanolek pandero ugari ekarri zuten

KONTZERTUAK HM Txokoan

Neguko kontzertua

2007ko urtarrilaren 13an- arratsaldeko 6,30tan - HM Txokoan

Julen Begoña, Josu Landeta eta Asier Arroyuelo
(alboka, kantu eta panderoa)

Julen Begoña 1989ko urrian hasi zen alboka ikasten, Erromoko Kultur Etxean, Ibon Koteron irakaslea zegoela. 1990an *Taloburni* izeneko taldea sortu zuen, aldi berean Sopelan eta Barakaldoko Hala Dzipo lokaletan alboka erakusten zuelarik. Urte haietan herriz herri ibili ziren asko, Rufino Arrolarekin behin baino gehiagotan gurutzatuz,... Parisko

Fresnes espetxearen aurrean alboka joaldia ere gogoratzeko dute, tartean batzuetan handik presaka alde egin behar izatearena ere, bai eta Belgikan, kultur aste batean emandako zenbait kontzertu. Gaur egun albokarien topaketetara joateaz gain badute zenbait emanaldi finko urtean zehar eta ez dira horietara faltatzen. Albokaren munduari Julen Begoñak egindako ekarpen garrantzitsuenetakoa sortu duen berezko jotzeko era da.

Kontzertu honetan egongo dira:

Julen Begoña: Alboka

Josu Landeta: Pandero eta kantua

Asier Arroyuelo: Pandero eta ahotsa

Kontzertua:

1. ***Puntepioa***



2. ***Ederregia zera zu (Leonen jota)***
3. ***Josetsuk (Leonen porrusalda)***
4. ***Mendi altuen edurre (Julenen jota)***
5. ***Txikitsuterik (Julen, Mauriziaren kanta)***
6. ***Fandangoa (Beltran) mimridola***
7. ***kalejira (Beltran) mimrire mifa***
8. ***Ama zuriak neri (kanta Julen, herrikoia)***
9. ***Do mri dola (Leonen kalejira herrikoia)***
10. ***Begire nago (Julenen jota bi)***
11. ***Martza baten lehen notak (Ibon, Mikel Laboa)***
12. ***Dringilin dango (Ibon eta Kepa)***
13. ***Txikitsu polita (Leonen porrusalda)***
14. ***Tarzan (Julenen kalejira)***
15. ***Mutil txaleko gorri (Beltran)***
16. ***Eguzkie joan da (buelta biko porrusalda, Leon)***
17. ***Artolak deuko (Leonen kalejira)***

SUONI DELLA TERRA

Zampogna italiarra, sakratua eta profanoaren artean



Festa, erritua, kantua eta Italiako zenbait herrietako musika tradizionala ezagutuko ditugu kontzertu honetan. Nekazal-artzain munduko soinu-tresnen artean nagusia den zampognaren aintzineko hotsekiko omenaldia izango da eta haren bidez tarantelak, saltareliak, novenak eta kanta erlijiosoak entzun ahal izango ditugu. Musika horrek, jatorrizko soinuak berrosatuz betidaniko emozioak berraurkitzera eramango gaitu.

Alessandro Mazzioti haizezko soinu-tresna tradizioaletan eta bereziki zampognan aditu handienetakoa da. Soinu-jole gisa maila internazionalakoa da eta herri musikaren ikertzaile garrantzitsuenen artean kokatu daiteke. Ettore De Carolis, Mimmo Epifani, Clara Murtas, Ambrogio Sparagna eta Carlo Faiello bezalako artistekin kolaborazioak egiteaz gain lan handia egiten ari da didaktika eta hedatze arlotan, zenbait lan argitaratu dituelarik. Ciaramella, Zampogna a chiave, Zampogna Zoppa, Surdulina eta Ciaramelle d'Amatrice soinu-tresnen

irakaslea ere bada. Gianluca Zammarelli ciaramella eta chitarra battente jole trebea da eta ederki ezagutzen du Italiako hego-erdiko musika tradizionala. Herri musikako talde garrantzitsuenekin egin ditu kolaborazioak.

Soinu-tresnak

**Zampogna
Ciaramella
azaleko flauta
Ahotsa**

Kontzertua (ggb)

Abruzzo : Saltarello - Stornelli

Lazio : Saltarelli - Ballarella - Canti su zampogna - Novena - Caprareccia - A Pastorizia - Pastorella - Serenata

Campania : Tarantella - Pastorale - Novena - Canto su zampogna - Serenata - A passo

Lucania : Tarantella lenta - Pastorale - Passeggera

Calabria : Tarantella - Canto su zampogna

Neguko kontzertua HM Txokoan

AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Orain arte bezala, afaria antolatu dugu Auzokalte elkartearen (Herri Musikaren Txokoaren ondoan) musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko. Izen emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua murrizta baita. Prezioa: 15 euro.



kontzertu honen laguntzaileak:



HM Eskolako afaria

Abenduaren 15ean Oiartzungo Herri Musika Eskolak aurreneko hiru hilabeteroko afaria ospatu zuen. Aitzakia izaten da afari hau ikasle eta irakasleen artean harremanak lantzeko, eguberri-tako oporren aurretik atsedentxo hartzeko eta -dudarik gabe- ikasitakoak lagun arteko festa giroan lantzeko ez bait ziren falta izan musika saioak afaldu ondoren. Giro ezin hobean bildu zirenei kostatu zitzaizen beren soinu-tresnak zorroetara bueltatzea.



Erakusketa mugikorra Amorebieta eta Añorgan

Azken hilabeteotan Herri Musikaren Txokoaren erakusketa mugikorra bi toki berrietan ezagutu dute: Amorebietan eta Añorgan (argazkian Añorgako zati bat, membranofonoen aldea). Amorebietan ekainaren 24, 25 eta 26an egon zen eta Añorgan berriz, Rezola Museoan kokatuta, irailaren 11tik 28ra arte. Añorgako Arkaitz dantza taldea izan zen erakusketaren antolatzailea eta oso arrakastua izan zela adierazi zuten.

Zilarrezko alboka Juan Mari Beltranentzat

2006.eko Urriak 3an, Galdames Folk Jaialdiaren 5.edizioan Zilarrezko Alboka eman zioten Herri Musikaren Txokoko Juan Mari Beltrani, musikari bezala egin duen ibilbidearengatik eta folk musika etengabe aberastu eta bultzatzeagatik.

BISITARI KOPURUA

Urria: bisitari kopurua: 72

Antolatutako taldeak: 10

Azaroa: bisitari kopurua: 261

Antolatutako taldeak: 15

Bisitari kopurua abendura arte: 13.100



HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax (9) 43 49 35 78

herrimusika@herrimusika.org // www.herrimusika.org



oiartzungo
udala